AZPEITIA



# VI. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

## 1988.eko Abenduaren 1etik 2lera

# AZPEITIKO VI. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

*ANTOLATZAILE:*

Azpeitiko Udala (Kultur Batzordea).

*B A B E S L E :*

*Gipuzkoako Foru Aldundia.*

*Eusko Jaurlaritza (Kultura eta Turismo Saila).*



## HITZAURREA

Eskuprograma hau eskuetan hartuz, orriak banaka-banaka irakurtzera zoazen horri:

Bistan duzunez, hemen gara berriro Abenduko hilean, VI.aldiz, Azpeitiko herrian errealitatea eta fantasia lotzera.

Hemen gara berriro, behin edo behin irri bat lapurtuz, momentu onak eskaintzeko eta negar sotin batekin zeure arazoetaz ahaztuerazteko.

Bainan, hemen gara berriro ere, guzti honen ondorioz zuri pentsaerazteko, bai jazkien margoetan, bai itsasoko piratetan....

Hori dena ikustea, entzutea, pentsatzea eta gozatzea EUSKARAZ egiteko helburu nagusiarekin, hemen gara berriro ere.

Oraingoan, panpinak, argiak, fokoak eta guztiak presto daude; antzeslariak margotu eta jantzi dira, pertsonaien azalean sartuz, antzerkia hastera doa.

ONGI ETORRIAK

AZPEITIKO VI. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK 1.988.
ANTOLATZAILEAK

Ordua: Gaueko 9,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.

Taldea: QUARTETTO DA CINQUE.
Antzeslana: KONTZERTU TEATRALA.



Antzesleak: MONTSE TRIAS (Sopranoa).
ANNA CORS (Sopranoa).
JORDI FUSALBA (Tenorea).
FERRAN FRAUCA (Baritonoa).
XAVIER DOLC (Pianoa).



''QUARTETTO DA CINQUE'' taldearen helburua, musika klasikoa eta antzerkiaren arteko harremanak aurkitzean datza. Musika interpretatzea antzestearekin lotzea; musika bela rrietatik ezik, begie tatik ere sartzea.

Ordua: Gaueko 9,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.

Taldea: BORDAXURI.
Antzeslana: BIDEAN HITZ BAT EDO BI...

Gizona itsua da, eta lau sosetan truk
akordeoia
jotzen du,
gaizki.

Andreak eskua luzatzen du
elizako atean.

Bi "eskale" diogun bezala,
arras guti dutenak elgarri erraiteko
eta oraino iduriz gutiago GURI erraiteko...

Egilea: FRANCIS BSTEROT.
Itzultzailea: JEAN PIERRE LAHIRIGOYEN.
Zuzendaria: JEAN MARIE BROUCARET.







# Abenduak 9 - Ostirala

Ordua: Gaueko 9,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.





Taldea: BEDEREN 1.
Antzeslana: EL RELEVO.





"...Estatua oraindik bizi da (ez da zeharo monumentu bihurtu), bainan laister iritsiko da bere agintaritzaren ordezkatzeko ordua. Nor izango da hurrengoa? nork burutuko du ERRELEBOA?..."

GORKA ARRESE
ARGIA 1.210 zbk.

Egilea: GABRIEL CELAYA.
Itzultzailea: JUAN GARTZIA.
Zuzendaria: ANTONIO MALONDA.





# Abenduak 13 - Asteartea



Ordua: Arratsaldeko 8etan
Lekua: AITONENA EGOITZAKO TABERNAN

Mokozki batek, (in vino veritas), Kanaanen gertaturikoaren lekuko, desberdin edo gutxienez osagarri izango den bertsio pertsonala emango digu pasarte bibliko horren aurrean. Geure haurtzaroaen artzain espiritualek su eta gar (edo kasuen aruaera jo eta ke) eta behin eta berriro azaldu baldin baziguten, pasartearen inguruan horren temati, kementsu, setati, indartsu, burugogor, adoretsu, zangar eta bipil aritu eta gero, berrikustapen bat merezi duela uste dugu



Taldea:
KEPA GALLEGO
Antzeslana:
KANANGO EZTAIAK
Egilea:
DARIO FO
Itzultzailea:
JUAN CARLOS ODRIOZOLA
Zuzendaria:
KEPA GALLEGO

Ordua: Gaueko 9,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.




Taldea: TTANTTAKA-TOPO.
Antzeslana: AGUR EIRE...AGUR.

XIX. mendeean, ingeles ejerzitoko espedizio bat, lurraldearen mapa geografikoa egiteko asmoz, Eirera abiatzen da.

Bertara iristean, lurraldeko biztanlegoarekin duten lehenengo desberdintasuna hizkuntzarena da... Hemen oinarrituz, antzeslan honetan Eireko biztanleen bizimodua, pentsakera eta jasaten dituzten zapalkuntzak aztertzen dira.

Egilea:
BRIAN FRIEL.

Itzultzailea:
IÑAKI ALBERDI.
JULIA MARIN.

Zuzendaria:
PERE PLANELLA.

Ordua: Arratsaldeko 7,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.



Taldea:
EKEKEI.

Antzeslana:
NI NAIZ KAPITAN PILOTO.

Oraingoan, piraten ipuina ezik, gure herriko historiaren parte bat kontatzeko eta antzestuaz ikusteko garaian gaude; eta bide batez, Ameriketako Aurkikuntzaren 500. urtemuga ospatzera goazela ikusirik, garai horretako pirata eta itsasgizonei dagokien lekua ezartzeri.





"Ba zein garai batetan, itsasontzi bat, dena piratez kargatua, bere izena MARIZIKIN eta bertako kapitaina, ARISTI KAPITAINA zen..."

Gehienetan honela hasten dira, gure haurtzeroan kontatzen zizkiguten piraten ipuinak eta historioak.







Ordua: Eguardiko 12,30etan.
Lekua: KALEETAN.

Taldea: TRAPU ZAHARRAK.
Antzeslana: EROAK.

Kale erdian errealitate eta fikzioaren artean mugitzen diren bi pertsonaien sorpresatik abiatuz, arrazoirik ez duten klabeetan joku berezi bat planteatuz.

Edozein egunetan eta edozein ordutan, bi gizaki arrunt, pijama eta abarketaz jantzirik, eskutik hartu eta kaletik dabiltza; jokuari hasiera eman zaio, hemendik aurrera edozer gauza gerta daiteke...

Zuzendaria eta Egilea:
TRAPU ZAHARRAK.









Ordua: Gaueko 9,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.

SARRERA

HAUTAGAIAK, batez ere clown erako lan bat da.

Gure prestakuntzaren garapenerako eta maskara antzerkiaren alorrean sakontzeko ere bat izango delakoan sortzen da taldean, clown klabean lan egiteko asmoa.

Egin genuen lehenengo gauza, bi hilabete iraun zuen prestaketa tekniko prozesuan zehar, hiru clown sortzea izan zen. Denboraldi hori pasa zenean, pertsonaiak erdi zehaztuta genituelarik, pertsonaia hauek edozein egoeratan kokatuko bagenitu ere, bakoitzak duen errealitatearen ikuspegi partikularra dela medio egoera hori aldatua izango zela konturatu ginen eta horietako edozein izango zela etorkizunean clown erako ikuskizun baten oinarri.

Pertsonaia bakoitza, clown bakoitza, zirkoan sortua izan zen, ondoren, egunerokotasunarekin, zirkokoa ez zen mundu batekin topo egiteko: lana bilatzea eta irudizko mundu bat sortzea, errealitatetik ihes egiteko modua bezala.

Bide guzti hau ibili ondoren, bere ataletako batean sakontzea erabaki genuen: clown-a eta lan munduarekiko bere enfrentamendua; bi hilabetetako prestaketa teknikoan zehar proposaturiko materiale guztia ahaztu gabe (bakoitzaren ezaugarri diren gora behera, jantzi, gauza, gorpuzkerak).

Gure FRIFRI, FLORENTINA eta PEPA edozein eratako lana burutzeko gertu zeuden, benetako ''HAUTAGAIAK'' ziren.

Taldea: LEGALEON T.
Antzeslana: HAUTAGAIAK.

Egilea: LEGALEON T.
Zuzendaria: ANA PEREZ

KARMELE ARANBURU



FELIPE BARANDIARAN



JUAN M.ª SEGUÉS



CECILIA GALARRAGA







FAMA



JOKIN CUETO



RAFAEL MENDIZABAL



Ordua: Arratsaldeko 7,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.

Taldea: ZINTZILIK.
Antzeslana: ALBISTEA.

Egilea: RAFAEL MENDIZABAL.
Zuzendaria: JOKIN CUETO.
Antzesleak: Karmele Aranburu.
Felipe Barandiaran.
J. María Segués.
Cecilia Galarraga.
Fama.

"Mi tía y sus cosas" lanaren komertzialtasunaren ondoren eta "Mañana será jueves" umorean oinarritutako lana idatzi ondoren, ALBISTEA lana idaztea dema moduko zerbait zen. Hemen, ustegabeko gertaera batek, gutariko edozein bezalako, gizon arrunt baten bizitzan zer eragin izan daitekeen azaltze saiatu naiz.

Gerta daitekeen guztia eta zerbait gehiago azaldu nahi izan dizuet eta espero dut lortu izatea.

# GAZTEENTZAT ANTZERKIA



Abenduak 7 - Asteazkena
Ordua: Arratsaldeko 3,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.

**Taldea: ORAIN.**
**Antzeslana: ASUFRE KOXKORRA.**
Egilea: ENRIQUE DIAZ DE RADA
Zuzendaria: MARIBEL BELASTEGI.




Abenduak 13 - Asteartea
Ordua: Arratsaldeko 3,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.

**Taldea: GASTEIZ**
**Antzeslana: SUPERTOT.**
Egilea: JOSEP MARIA BENET I JORNET.
Itzultzailea: PATXI G. ARDANAZ
Zuzendaria: CARLOS GIL.



# Abenduak 19 - Astelehena

Ordua: Arratsaldeko 3,30etan.
Lekua: ZELAITXO ZINEMA.

Taldea: TAUPADA.



# ESKOLA ANTZERKIGINTZA

Abenduak 8 - Osteguna
Ordua: Goizez, 11etan.

**Taldea:** Bermeoko San Francisco Herri Ikastetxea.
**Antzerkia:** ERREGEAREN JANTZI BERRIA.
BARRASKILO AZKARRA.
MENDI URDINEKO ALTXORRA.
ERREGEA ETA POSTARIA.

Ordua: Arratsaldez, 3,30etan.

**Taldea:** Beasaingo alkartasuna Ikastola.
**Antzerkia:** GIZON BIZARPEITUTI ETA EMAZTE BIZARTSUTI.

Abenduak 12 - Astelehena
Ordua: Goizez, 11etan

**Taldea:** Ataungo J.M. Barandiaran Herri Ikastetxea.
**Antzerkia:** BATA ZU ETA BESTEA NI

Ordua: Arratsaldez 3,30etan
**Taldea:** Aiarako Etxaurren Ikastola
**Antzerkia:** INDIO MAITEAK

Abenduak 15 - Osteguna
Ordua: Goizez, 11etan

**Taldea:** Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastola.
**Antzerkia:** MOZKOR BAT KALEAN
ZEIN HOBEA
LORTU NAHI ETA EZIN

Ordua: Arratsaldez 3,30etan.
**Taldea:** Bilboko J. Delmas Herri Ikastetxea.
**Antzerkia:** HAMELINGO TXISTULARIA.



## TALDEEN ETA ANTZESLARIEN TOPAGUNEA

Gaia: ANTZERKI NORMALIZAZIOAREN BIDEA.

Eguna: Abenduak 17 - Larunbata

Ordua: GOIZ ETA ARRATSALDEZ.

Lekua: ENPARAN DORRETXEA.

# ANTZERKI EMANALDIEN EGUTEGIA

| Eguna | Ordua | Tituloa |
|---|---|---|
| Ostirala 2 | 9,30etan | Quartetto da Cinque: KONTZERTU TEATRALA. |
| Larunbata 3 | 9,30etan | Bordaxuri: BIDEAN HITZ BAT EDO BI... |
| Asteazkena 7 | 3,30etan | Orain: ASUFRE KOXKORRA. |
| Osteguna 8 | 11etan | San Francisco H.I.: ERREGEAREN JANTZI BERRIA.<br>BARRASKILO AZKARRA.<br>MENDI URDINEKO ALTXORRA.<br>ERREGEA ETA POSTARIA. |
| Osteguna 8 | 3,30etan | Alkartasuna Ik.: GIZON BIZARPEITUTI ETA<br>EMAZTE BIZARTSUTI. |
| Ostirala 9 | 9,30etan | Bederen 1: EL RELEVO. |
| Larunbata 10 | 9,30etan | Goaz: KANPOTARRAK MAISU. |
| Astelehena 12 | 11etan | J.M. Barandiaran H.I.: BATA ZU ETA BESTEA NI. |
| Astelehena 12 | 3,30etan | Etxaurren Ik.: INDIO MAITEAK. |
| Asteartea 13 | 3,30etan | Gasteiz: SUPERTOT. |
| Asteartea 13 | 8etan | Kepa Gallego: CANANGO EZTAIAK. |
| Osteguna 15 | 11etan | Karmelo Etxegarai Ik.: MOZKOR BAT KALEAN.<br>ZEIN HOBEA.<br>LORTU NAHI ETA EZIN. |
| Osteguna 15 | 3,30etan | J. Delmas H.I.: HAMELINGO TXISTULARIA. |
| Ostirala 16 | 9,30etan | Ttanttaka-Topo: AGUR EIRE...AGUR. |
| Larunbata 17 | 7,30etan | Ekekei: NI NAIZ KAPITAN PILOTO. |
| Igandea 18 | 12,30etan | Trapu Zaharrak: EROAK. |
| Astelehena 19 | 3,30etan | Taupada: ETA ETXEKOAK ZER MODUZ? |
| Asteartea 20 | 9,30etan | Legaleon T.: HAUTAGAIAK. |
| Asteazkena 21 | 7,30etan | Zintzilik: ALBISTEA. |

IMPRENTA MARTINEZ, C.B. - AZPEITIA